

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Joxe Migel Olano Alzua

*Donostia,
Gipuzkoa
(1937)*

Aurkibidea



Biografia



Usurbilen jaio zen, baina Donostian bizi da 5 urte zituenetik. Ama Zegamakoa zuen, eta aita usurbildarra, medikua; gerraren ondorioz lana galdu zuen, eta Donostian jarri zuen kontsulta. Lehenengo Hernani kalean bizi izan ziren, eta San Martin kalean gero. Zazpi senide ziren. Marianistetara joan zen Joxe Migel. 15 urterekin futbolekin jokatzeko hasi zen, eta laster gailendu zen kirol horretan, Sansen. Errealeko pitxitxia izan zen 1962-63 denboraldian. Perito ikasi zuen. Eusko Jaurlaritzako Kirol aholkulari izan zen, eta besteak beste SOS Deiak-eko arduraduna izan da.

Zintak

DON-083

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2010-02-23
- **Iraupena:** 116 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Unamuno, Arianne

Pasarteak

1. Aita eta aitona medikuak, kotxez, zaldiz eta oinez

- **Erref:** DON-083/002
- **Iraupena:** 0:03:23. **Hasi:** 00:03:35. **Bukatu:** 00:06:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk

Laburpena:

<p>Bost-sei urterekin Donostiara etorri zen bizitzera eta igandetan aitona-amonak bisitatzen joaten zen Usurbilera. Oroitzapen politak ditu. Medikuek izanik, aitona zaldia erabiltzen zuen eta aitak kotxea.</p>

2. Aitak gerra garaian mediku postua galdu

- **Erref:** DON-083/003
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:06:58. **Bukatu:** 00:09:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Bost urte ingururekin etorri zen Donostiara bizitzera, Hernani kalera. Aitak gerra garaian ezkutatuta egon behar izan zuen eta bere Lasarteko postua galdu zuen. Orduan Donostiara etortzea erabaki zuen. Aitona gerra aurretik Usurbilgo alkate izan zen, abertzalea.

3. Usurbil erabat euskalduna

- **Erref:** DON-083/005
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:13:29. **Bukatu:** 00:15:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ekonomia eta industria » Boom industrialak

Laburpena:

Herri euskalduna zen Usurbil eta Santuene auzo berria egin zutenean, langile kanpotarrak joan ziren bizitzera eta hor aldaketa handia eman zen hizkuntzaren gaian. 1950 urte ingurua zen. Usurbilen euskaraz denek egiten zuten, baita guardia zibilak eta bere senideek ere.

4. Eskolako saskibaloi taldean

- **Erref:** DON-083/006
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:15:44. **Bukatu:** 00:17:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak

Laburpena:

<p>Hamazazpi urte bitartean ibili zen marianistetan. Don Silvinok kirol klaseak ematen zizkien. Saskibaloian hasi zen orduan eskolan, jolas-orduan futboleko egiten bazuten ere.</p>

5. Saskibaloitik futbolera

- **Erref:** DON-083/007
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 00:17:33. **Bukatu:** 00:20:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak

- [Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk](#)

Laburpena:

Marianistetako saskibaloiko taldean jokatzen zuen. Gros frontoian jokatzen zituzten partidu garrantzitsuenak. Behin finalaurrera irabazi eta Errealaren kontra jokatzeak ziren finala bertan behera utzi zuten marianistek, Athletic-ekin derbia baitzegoen Bilbon. Saskibaloiko taldea desegin egin zen orduan eta handik gutxira Errealeko jubenileko entrenatzaileak proba egitera eraman zituen mutiko batzuk. Hala hasi zen futboleant.

6. Errealeko jubeniletatik Sanse sortzeraino

- **Erref:** DON-083/008
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:20:19. **Bukatu:** 00:22:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- [Aisia » Kirola » Futbola](#)

Laburpena:

Hamabost urte ingururekin hasi zen futboleant Errealeant. Hamaseirekin Anoetan entrenatzen hasi zen. Jubeniletan Espainiako txapeldun izan ziren 1954an. Talde horretatik "Sanse" taldea sortu zen eta bigarren mailan jokatzen hasi ziren.

7. Errealarekin pitxitxi

- **Erref:** DON-083/009
- **Iraupena:** 0:03:08. **Hasi:** 00:22:18. **Bukatu:** 00:25:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- [Aisia » Kirola » Futbola](#)

Laburpena:

Urtez urte, mailaz igotzen hasi ziren lehenengo mailara arte. Bi urte lehenengo mailan egin ostean Errealera pasatu zen. Errealarekin bigarren mailan jokatu zuenean, pitxitxi izan zen, 19 partidutan 31 gol sartu zituen. Errekor hori ez da gainditu. Futboleant jokatzeak modua aldatu egin da.

8. Murcia futbol taldeant hiru urtez

- **Erref:** DON-083/010
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:25:26. **Bukatu:** 00:28:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- [Aisia » Kirola » Futbola](#)

Laburpena:

Pitxitxi izan ostean, Murcia taldera aldatu zuen Errealak eta hiru urte eman zituen han. Bertan konturatu zen alde handia zegoela batetik bestera, Errealeant taldekideek ondo ezagutzen zutelako elkar eta taldea sendoagoa zen. Atezaina Arakistain zen; Arzak, Mendiluze, Urresti, Pedrosa eta beste hainbat zituen taldekide.

9. Atotxa, zelai berezia

- **Erref:** DON-083/013
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:33:26. **Bukatu:** 00:35:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Futbola

Laburpena:

<p>Errealeko afizioa ez zen orain bestekoa. Kritikoa izan da beti hemengo afizioa. Atotxa futbol zelaiak gertutasun handia ematen zion afizioari. Zelai polita zen jokatzeko.</p>

10. Hemengo futbol zelaiak beti lokaztuta

- **Erref:** DON-083/014
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:35:55. **Bukatu:** 00:38:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Futbola

Laburpena:

<p>Atotxako futbol-zelaiak (ikus mapan) ia beti lokaztuta egoten zen eta beste taldeentzat traba zen hori. Inguruko zelai denetan gertatzen zen. Ipuruan (Eibar) gertatutako anekdota bat kontatzen du.</p>

11. Jokalari denentzat soldata bera

- **Erref:** DON-083/015
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:38:20. **Bukatu:** 00:39:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Futbola

Laburpena:

Presidenteak alkatea zen orduan. Soldata berdina izaten zuten jokalariek guztiek, 125.000 pezeta. Telebistak ekarri du soldatetan hainbesteko aldaketa.

12. Jubeniletako finala ehun mila lagun aurrean

- **Erref:** DON-083/017
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:40:11. **Bukatu:** 00:42:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Futbola

Laburpena:

Oroitzapen politenetako bat kontatzen du: jubeniletan zeudela 110.000 lagun aurrean jokatu zuenekoak. Nagusien finala jokatu aurretik, jubenilena jokatzeko zen. Sanserekin igo zenekoak eta Errealarekin kanpoan jokatu zuen lehenengo partidua ere gogoan ditu.

13. Pilotan Gipuzkoako txapeldun

- **Erref:** DON-083/019
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:43:00. **Bukatu:** 00:45:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Futbola
- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

Futbola utzi zuenean, pilotan hasi zen. Gipuzkoako txapeldun izatera iritsi zen.

14. Ibaetako lizeoaren eraikuntza

- **Erref:** DON-083/021
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 00:46:21. **Bukatu:** 00:49:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Ikastolen mugimenduko kide izan zen. 1965ean hasi zuen harremana ikastolekin. Asteburuetan bertan aritzen zen buru-belarri. Ibaetan lizeoa egin zuten garaia kontatzen du.

15. Ikastolak eta Eliza

- **Erref:** DON-083/022
- **Iraupena:** 0:03:03. **Hasi:** 00:49:07. **Bukatu:** 00:52:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Ibaetako lizeoa etorkizunerako moduan eraiki zen, eskaera handia zegoen eta. Erabaki garrantzitsuak hartzen ziren orduan modu kolektiboan. Elizak emandako laguntza azpimarratzen du.

16. Franco Donostian zenean, abertzaleak kartzelara

- **Erref:** DON-083/024
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:53:18. **Bukatu:** 00:55:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Aisia » Oporrak

Laburpena:

Madrilgo udatiarrak hiru hilabetez etortzen ziren. Franco ere etortzen zen oporretan eta bera hemen zegoen bitartean, abertzaleak kartzelaratu egiten zituzten.

17. Gasezko farolak kalean

- **Erref:** DON-083/029
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 01:01:04. **Bukatu:** 01:03:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Udal langileak
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

<p>Gasezko farolak izaten ziren kalean. Kanabera bat bezelakoa izaten zen eta puntan su ematen zitzaion banan-banan. Serenoa bederatzirak-hamarrek aldean hasten zen. Donostian etxeetako ateak itxita egoten ziren, Usurbilen ez. Usurbilen soka batekin ixten zen eta gauez txingetarekin.</p>

18. Ikatzezko futbol zelaia Amaran

- **Erref:** DON-083/030
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 01:03:13. **Bukatu:** 01:05:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Futbola
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:

Labaderorik ez zegoen inguruan, ezta sagardotegirik ere. Pio XII kalean marismak zeuden eta han baziren sagardotegiak. Amaran ikatzezko futbol zelaia zegoen, "poltsikoko zelaia" deitzen zioten.

19. Igogailu zaharrak

- **Erref:** DON-083/033
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 01:09:56. **Bukatu:** 01:10:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak

Laburpena:

Igogailua ezagutu zuen, jarleku eta guztikoa. Erortzen ikusi zuen behin kablea apurtu baitzen.

20. Zezen Plazako giroa eta ikuskizunak

- **Erref:** DON-083/034
- **Iraupena:** 0:03:04. **Hasi:** 01:10:55. **Bukatu:** 01:13:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Zezenak

Laburpena:

San Sebastian eguna Alde Zaharreko kontua zen. Orduan ez zen hainbeste sentitzen. Aste Nagusian zezenak ziren ospakizun nagusia. Giro oso ona izaten zen. Zezen plaza oso ederra zen, duna baten gainean zegoen. Aizkolarien arteko apustuak eta bestelako ikuskizunak ere izaten ziren.

21. Apustuak zezen plazan

- **Erref:** DON-083/035
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 01:13:59. **Bukatu:** 01:15:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:

Luzia, Korta, Agineta... aizkolariak izaten ziren Txofre zezen plazan. Apustu asko egiten ziren.

22. Usurbilen dantzan neskak neskekin

- **Erref:** DON-083/037
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 01:19:07. **Bukatu:** 01:21:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Usurbilen festatan izaten zen dantzaldia. Neskek debekatuta zuten gizonekin dantzatzea, bestela Mariaren Alabetatik botatzen zituzten. Neskek neskekin dantzatzen zuten eta mutilek begira egon behar.

23. Zinemako pelikulen sailkapena eta nodoa

- **Erref:** DON-083/040
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 01:26:21. **Bukatu:** 01:29:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Zenbakien arabera sailkatzen ziren pelikulak zineman: bat, bi, hiru edo hiru R. Nodoari buruzko anekdota kontatzen du.

24. Zinema aretoak eta Kursala

- **Erref:** DON-083/041

- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 01:29:31. **Bukatu:** 01:32:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Miramar, Principe, Principal, Victoria Eugenia, Bellas... aretoak zeuden. Kursaal itxita zegoen eta zinema berezia emateko aretoa ireki zuten. Arrakasta izan zuen. Kursaalari buruzko iritzia ematen du.

25. Irrati zaharrak

- **Erref:** DON-083/042
- **Iraupena:** 0:02:49. **Hasi:** 01:32:06. **Bukatu:** 01:34:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia

Laburpena:

Orratz antzeko batekin bilatzen ziren emisorak irratian. Ez zen apenas ezer harrapatzen. "Radio San Sebastián", "La voz de Gipuzkoa" eta "Radio Nacional" izaten ziren. "Radio Paris" entzuten zuten, debekatuta egon arren.

26. Garaiko egunkariak, "la Codorniz"

- **Erref:** DON-083/043
- **Iraupena:** 0:03:08. **Hasi:** 01:34:55. **Bukatu:** 01:38:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:

"La Voz de España", "Diario Vasco" eta "Unidad" egunkariak egoten ziren. "El Caso" egunkarian hildako guztiak agertzen ziren. "La Codorniz"en txisteak eta ateratzen ziren, kritikoa zen. Madrilan argitaratzen zen.

27. Aitiak gaixoen historialak euskaraz

- **Erref:** DON-083/044
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 01:38:03. **Bukatu:** 01:39:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Ez du desberdintasun handirik nabaritzen Usurbil eta Donostiako euskalkien artean. Aitak, medikua izanik, gaixoen historialak euskaraz idazten zituen.

Iñaki Barriolaren oso laguna zen, medikua eta oso euskaltzalea. Roman Irigoien, Altzako medikuaren oso laguna zen baita.

28. Eusko Jaurlaritzan kirol zuzendari

- **Erref:** DON-083/046
- **Iraupena:** 0:02:41. **Hasi:** 01:41:42. **Bukatu:** 01:44:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika
- Aisia » Kirola

Laburpena:

Eusko Jaurlaritzan hiru urtez kiroletako zuzendari izan zen, 1985etik 1988ra. Aurreneko kirol legea egin zuten, SHEE-IVEF martxan jarri zuten, Legutioko arraun pista egin zuten... Aurretik Gipuzkoako Aldundian egin zituen urte batzuk zuzendari. Parlamentari ere izan zen baina berea kudeaketa zen.

29. SOS Deiakeko arduradun

- **Erref:** DON-083/047
- **Iraupena:** 0:03:34. **Hasi:** 01:44:23. **Bukatu:** 01:47:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna

Laburpena:

SOS Deiakeko arduradun izan da hamabi urtez. Lan betegarria izan da berarentzat. 1983ko uholdeetan sortu zen SOS Deiak eta 1990ean egituratu eta martxan jarri zen.

30. Futboleko argazki zaharrak

- **Erref:** DON-083/049
- **Iraupena:** 0:04:50. **Hasi:** 01:51:10. **Bukatu:** 01:56:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Irudiak grabatzen

Laburpena:

Futboleko argazki zaharrak erakutsiz, orduko kontuak kontatzen ditu. Futbolarien izenak esaten ditu.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-12-14

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com